

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BERANGOKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2013.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Berangoko Udalaren 2013ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, diru-sarrera, langileria, administrazioko kontratazio eta diru-laguntzaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Honela, bada, HKEEk adierazi du Udalak urratu egin dituela hainbat kasutan publikotasun eta lehia printzipioak, mugaeguna jotako hiru zerbitzu kontratari bere horretan eutsi baitie lehiaketa berririk bideratu gabe; beste batzuetan ez ditu iragarkiak BOEn eta DOUEn argitaratu; eta hornidura kontratu batean ez du dagokion prozedura izapidetu.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Funts Propioak eta Diruzaintza Geldikina, hurrenez hurren, 4,9 eta 0,3 milioi euroan gehitu dutenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, diru-laguntza, kontratazio eta beste hainbat arlotan.

Azkenik, finantza egoerari dagokionez jakinarazi da sortutako aurrezki garbia nabarmen murriztu dela 2011z geroztik 2013an desagertu den arte, batik bat, Udalak itunpeko zergen dirubilketan duen partaidetzak (Udalkutxa) behera egin izanaren ondorioz. Aldi honetan bertan, kapital eragiketek eragindako sarrerak ekitaldi

bakoitzeko egiazko inbertsioak finantzatzeko behar hainbatekoak izan ez direnez gero,
Udalak Diruzaintza Geldikina baliatu behar izan du inbertsio horiek finantzatzeko.